

Sorginen garaian



- **Filma ikusi eta gero...**
- **Ulermena sakondu: Sorgin ehiza filmean**





ERANSKINAK

Pierre de Rosteguy de Lancre

Frantziako erresuman, XVII. mendearen hastapena biziki garai nahasia zen. Nobleek beren pribilegioak bermatu nahi zituzten, eta burgesi buru egin.

Henrike IV.a Frantziakoak nobleei bere autoritatea inposatu nahi zien. Halaber, Frantziaren eta Espainiaren arteko muga behin betiko finkatu nahi zuen. Hortako, 1605ean Lapurdiko noble eta burges batzuen artean piztu zen gatazkaz baliatu zen. Besteak beste, alderdi bakoitzak zioen beste alderdikoak sorginkerian ari zirela. Denbora hartan, akusazio hori biziki larria zen.

Henrike IV.ak juje bati galdegin zion inkestaren burutzea. Juje hori Pierre de Lancre zen. 1609an, lau hilabetez, Pierre de Lancre sorginen bila ibili zen Lapurdin. Alabaina, haren iduriko, Euskal Herria sorginez betea zen. Lauzpabost ehun lekuko galdekatu zituen, gehienik emazteak, baita gizonak eta haurrak ere.

Euskaraz ez baitzekien, De Lancrek itzultzaile baten zerbitzuak erabili zituen. Itzultzaile horrek, batzuetan, lekukoen erranak aldatu zituen. Auzitegia lehenik Baionan plantatu zuen, eta gero Uzta-ritzen, Senperen, Azkainen, Donibane Lohizunen, Saran eta Kanbon. Tortura erabili zuen aitormenen erdiesteko eta edozein lekukotasun kontuan hartzen zuen, hobenduntasunaren aldekoa zen ber.

ERANSKINAK

Susmorik ukan orduko, jendea heriotzara kondenatzen zuen. Hau idatzi zuen: "Ene iritzia beti izanen da den mendreneko seinalerik izanez geroz, hilarazi behar direla."


Haren ustez, Euskal Herrian, dena Gaizkiaren eta sorginkeria markatzen zen: emazteen janzteko moldeak, euskara (ez baitzuen ulertzen), euskaldunek itsasoaz zuten ezagutza, hartan bainatzera ausartzen baitziren...

Euskal Herrian, gizonek urtean anitz hilabete urrun iragaten zituzten arrantzan eta, ondorioz, emazteek askatasun handia zuten. De Lancrek ez zezakeen hori jasan.

Ehunka pertsona presondegira edo heriotzara kondenatu zituen, horietarik zenbait bizirik errearaziz. 1609aren hondarrean, gizonak arrantza lekuetatik itzuli ziren eta heriotza kondenak kontra oldartu. De Lancre Euskal Herritik tarrapatan lekutzera behartu zuten. Baina gertakari horiek jendea luzaz markatu zuten. Ondoko mendeetan Euskal Herriko jendea sorginen beldur egon zen. Alta, sorgin horiek De Lancreren gogoan zeuden, errealtatean baino.

De Lancrek liburu bat idatzi zuen: *Tableau de l'inconstance des mauvais anges et démons*. Han Lapurdiko sorginak eta sorginkeria luze eta zabal aipatu zituen.

ERANSKINAK



Liburu horrek arrakasta handia ukan zuen eta sorginkeriar buruzko sinesteen garapena eragin zuen.

Pierre De Lancre idatzi liburuaren lehen orrialdea



Inkiszio denboran

ERANSKINAK

Zugarramurdi

Zugarramurdi Nafarroako ipar-mendebaldean da, Saratik eta Ainhoatik hurbil. Herri hartako leizea biziki ezaguna da, sorginak inguru haietan biltzen omen zirelako. Leizearen ondoan, pentze batek *akelarre* izena du. Izen hori sorginen bilkurena ere da! Leizea biziki handia da. Erreka batek sortu zuen. Preseski, erreka hori *Infernuko erreka* ere erraten zaio...

De Lancrek Lapurdin burutu auziek Euskal Herrian sorginkeriaren obsesioa piztu zuten. 1608an, Ziburun lau urtez egon zen Zugarramurdiko emazte gazte batek, herrira itzultzean, kontatu zuen Ziburun sorgin bilakatu zela eta lehenago Zugarramurdin sorgin bilkura batzuetan parte hartu zuela.



Zugarramurdiko leizea

ERANSKINAK

Geroztik damutu omen zen.

Zugarramurdiko emazte batzuk salatu zituen. Horren ondorioz, salaketa eta aitormen anitz izan zen. Denbora hartan, Elizak auzitegi berezi bat bazuen erregearen zerbitzuko: Inkisizioa. Beraz, Inkisizioak arazoaz arduratzea erabaki zuen eta, 1610ean, auzi bat izan zen, Logroñon. Han, Zugarramurdiko berrogei bizilagun sorginkeriak akusatu zituzten. Kondenaturik, gizon eta emazte batzuk bizirik erre zituzten eta beste batzuk betiko erbesteratu, haien ondasunak konfiskaturik. Pertsona zenbait auzia gertatu aitzin hil baitziren, inkisizioak haien irudiak erre zituen.



Zugarramurdiko sorginak

- **Filma ikusi eta gero...**
 - **Ulermena sakondu: Sorgin ehizaren hastapena**



Sorgin ehizaren hastapena

• Entzun eta ikusi bideoa bi aldiz eta erantzun galderei :

- Sorgin ehizaren hastapena - fitxa osoa
- Sorgin ehizaren hastapena - fitxa sinplifikatua

3

SORGIN EHIZAREN HASTAPENA

Bideoaren entzumena

Entzun eta ikusi bideoa bi aldiz eta erantzun galderei erantzun zuzenak inguratuz edo esaldi osoak eginez.

1. Zugarramurdiko prozesua da Euskal Herriko sorgin ehizaren adibide bakarra?

a) Bai, Euskal Herrian bakarrik Zugarramurdin ehizatu zituzten sorginak.
b) Ez, ez zen Euskal Herriko sorgin ehiza bakarra izan baina bai deigarriena.
c) Ez, ez zen Euskal Herriko sorgin ehiza bakarra izan, ez eta deigarriena ere.

2. Zonbat pertsona atxilotu zituzten Zugarramurdin? Eta nor ziren gehienak?

.....

3. Ikasleek nola irudikatzen dituzte sorginak? Alpatu ikasleen hiru hitz edo idela.

.....

4. Sorgin ehizaren prozesua nongoa izan zen?

a) Sorgin ehiza ez zen bakarrik Zugarramurdikoa izan; Euskal Herriko prozesu bat izan zen.
b) Sorgin ehiza bakarrik Zugarramurdi eta ondoko herrietako prozesu bat izan zen.
c) Sorgin ehiza ez zen bakarrik Zugarramurdikoa izan; ezta Euskal Herriko bakarrik ere. Sorgin ehiza Europako prozesu bat izan zen.

5. Zonbat lagun hil zituzten erreta edo urkatuta Europan?

.....

6. Dena liburu batekin hasi zen. Zer alpatzen da liburuan?

a) Liburuak alpatzen du nola sorginek deabrua gurtzen zuten eta nola identifikatu sorgin bat.
b) Liburuak alpatzen du nola sorginek jaunkoa gurtzen zuten eta nola identifikatu sorgin bat.
c) Liburuak alpatzen zuen Europako zoin herritan sorginak baziren eta nola identifikatu sorgin bat.

7. Zer da Inkisizioa?

a) Eliza Katolikoak bere bidetik joaten ziren pertsonak zigortzeko erakundea.
b) Eliza Protestanteak pertsona gaiztoak zigortzeko erakundea.
c) Eliza Protestanteak bere bidetik joaten ziren pertsonak zigortzeko erakundea.

HIZTEGIA:

Ehiza: *chasse*
Bakar: *séul*
Deigarri: *frappant*
Atxilotu: *arrêter*
Irudikatu: *imaginer*
Urkatu: *pendre*
Gurtu: *vénérer*
Erakunde: *institution*





Zugarramurdiko sorginak

➤ Ulermena sakondu: Sorgin ehiza Zugarramurdin



Zugarramurdiko sorginak

• Entzun eta ikusi bideoa bi aldiz eta galderei erantzun:

- Sorgin ehiza Zugarramurdin - Fitxa osoa
- Sorgin ehiza Zugarramurdin - Fitxa sinplifikatua

4

SORGIN EHIZA ZUGARRAMURDIN

Bideoaren entzumena

Entzun eta ikusi bideoa bi aldiz eta erantzun galderei erantzun zuzenak inguratuz edo esaldi osoak egin ez.

- Lapurdiko eta Zugarramurdiko sorgin ehizak...
 - biziki ezberdinak dira.
 - erabat loturik daude.
 - pixka bat loturik daude.
- Zergatik joaten da jendea (turistak) nagusiki Zugarramurdirat?

.....
- Zoin hiru gauza egiten zituzten Zugarramurdiko jendeek leze honetan?

.....
- Inkiszioaren etortzearekin besta pagano hauek alde ilunera pasatu ziren...
 - baña inkiszioak besta paganoak egiten utzi zuen.
 - sorginei "Akelarre" izena ezarri zieten.
 - eta Zugarramurdin sorgin sekta bat bazela erran zuten.
- Maria Ximildegik Urdazubiko abadeari erran zion Ziburuko akelarreetan izan zela eta...
 - besta horiek nola pasatzen ziren esplikatu zion.
 - bertze herrikide batzuk salatu zituen.
 - bera sorgina zela erran zion.
- Nork salatzen zuen sorgina?
 - Bizilagun (auro) batzuek bertzeak salatzen zituzten.
 - Apezak jendea salatzen zuen.
 - Deabruak jendea salatzen zuen.
- Ez dugu ahanzi behar bera sorgina zela aitortzen zuenak...
 - bere familia salbatzen zuela.
 - fite hiltzen zutela.
 - bizia salbatzen zuela.

HIZTEGIA:

Lotu: *relier*

Leze: *harpe ; grotte*

Pagano: *paien*

Ilun: *forcé*

Sekta: *secte*

Abade: *abbé, prêtre*

Herrikide: *concitoyen*

Salatu: *dénoncer*

Bizilagun: *voisin*

Aitortu: *avouer*



➤ **Ulermena sakondu: Zugarramurdiko sorginak**
filmean



Dokumentu guziak

Bideoak:

- Sorgin ehiza L&A filmean <http://www.ikas.eus/spip.php?action=telecharger&arg=8021>
- Sorgin ehizaren hastapena <http://www.ikas.eus/spip.php?action=telecharger&arg=8052>
- Sorgin ehiza Zugarramurdin <http://www.ikas.eus/spip.php?action=telecharger&arg=8020>
- Zugarramurdiko sorginak - L&A filmean
<http://www.ikas.eus/spip.php?action=telecharger&arg=8019>

Lan dokumentuak:

- Sorgin ehizaren hastapena <http://www.ikas.eus/spip.php?action=telecharger&arg=8015>
- Sorgin ehizaren hastapena /sinplifikatua
<http://www.ikas.eus/spip.php?action=telecharger&arg=8016>
- Sorgin ehiza Zugarramurdin <http://www.ikas.eus/spip.php?action=telecharger&arg=8018>
- Sorgin ehiza Zugarramurdin /sinplifikatua
<http://www.ikas.eus/spip.php?action=telecharger&arg=8017>